

DIGLOSLIA: HORRA HOR ARRISKUA

Gaurko Euskal Herrian, eta geroari buruz, hizkuntzaren arazoa dugu gailen.

Eta, hala ere, ezin sinetsiak dira, benetan, arazo honetaz euskaldunek eta euskaltzaleek berek erakutsi ohi dituzten ezjakintza eta xinplekeria.

Euskal prentsak bultzaturik eta euskaltzale guzior laguntzaz abiarazi nahi dugun DIGLOSIARI EZ bultzaldi hau hasterakoan, egoki gertatzen da gure ustez zenbait puntu nagusi berriro gogoraztea eta garbi uztea.



Zer den eta zer ez den hizkuntzen heriotza

Hizkuntzak ez dira, hor nonbait, hiltzen, eta bizi ere ez dira hor nonbait, gugandik at, bizi. HIZTUNEN-GAN bizi dira hizkuntzak, eta ERABILIAK DIRELAKO, eta erabiliak diren heinean hain zuzen bizi dira. Eta hizkuntzak ezagutzen direnen ahotan ERABILTZEN ez badira, HIL egin direla esaten da.

Hizkuntzaren PRAXIA, ERABILERA, da kategoria; edo-ta, beste muturrean, PRAXIRIK EZA, EZ ERABILTzea; eta ez hizkuntzaren "aldeko" edo "aurkako" esanak eta zerimoniak.

Erdaraz ari garen bakoitzean, ERDARA bizi da gure bitartez, eta euskara hiltzen. Euskara geure hizketatik edo praxitik baztertzea da euskara gudan hiltzea. Euskara ez erabiltzea edo erabiltzen ez uztea: horra hor zehazki euskara hiltzea zertan datzan.

Zein hizkuntza hil da?

Batzu entzutean, aspaldiko mendeetan ez besteetan gertatzen bidezen hizkuntzen heriotza.

Alde batetik, nahasi egiten dira HILDAKO hizkuntza zahar batzuek

(galiera, kornikera eta dalmaziera, eman dezagun), eta BESTELAKATU besterik egin ez diren beste batzuek (latinera edo sanskritera, esate baterako).

Hots, latinera funtsean ez da inoiz hil: bai Italian, bai Rumanian, bai gainerakoetan, latinera hasi zen hizkera-katea EZ DA INOIZ ETEN; baina, mendeen buruan, ulergaitz gertatzen zaie gaurko hiztunei beren arbaso urrunen proto-mintzairu ulertzea. Latinera, alde horretatik, ez da inoiz hil; etendurarik gabe erabilia izan baita antzinako Inperio hartako lurralde askotan.

Galiera, kornikera eta dalmaziera, berriz, egiazki suntsitu ziren; eta etendura bat gertatu zen, kanpotik etorritako beste hizkuntza batek ordainduz. Galierari (keltiko adarra) latinera nagusitu zitzaion Erdi-haroko hasera aldean; eta gero, segidaz, frantsesa. Kornikerari (keltiko adarra ere bai), Britaina Nagusiko Mendebalde muturrean, kanpotik etorritako inglesa nagusitu zitzaion XVIII. mendean. Eta dalmazierari (hau latinaren adarra izanik) serbo-kroata nagusitu zitzaion Yugoslabia-ko itsasertzean joan den XIX. mendean. Hiru kasu hauetan, bai: HIL egin zirela esan dezakegu; halako batez alde batera utzirik gertatu eta kanpo-

tik etorritako beste hizkuntza desberdin batez ordainduak izan zirelako.

Euskara, beraz, latinera bestalderara, egiazki dago hiltzeko zorian; nagusitzen ari zaizkion bi erdarak ez baitira haren ezpalekoak edo ondorengoak. KANPOTIK ETA ORDAIN-BIDEZ etorritako mintzairak baizik.

Gaur ere hizkuntza batzuek hiltzeko zorian

Gaur ere, XX. mende-hondar honetan, hizkuntza pilo bat dugu itzaltzeko zorian. Hemen, labur beharrez, banaka batzuek aipatuko ditugu.

Hor ditugu, hasteko, keltiko adarrak diren bi gaelikera: Eskozia-koa eta Irlanda-koa. Eire-ko Erresuma Askatuan, esate batera, orain ari dira hiltzen azkeneko gaelikodunak (30.000 bat gehienez); eta, erabiltzaile gutxitan gertatzen direlarik, ba omen dira mintzatzen dakitena beste 150.000 irlandar. Baina gaurko Irlanda Askatuan erabili gaelikera EZ DA ERABILTZEN; eta horixe deritzogu hizkuntza HILA hain zuzen.

Hor dugu ere, azkenetan, Eskozia-ko gaelikera: Hebridas uhartean eta beste zoko batzutan bizi dira ERABILTZEN duten arantzaleak.

Hor ditugu ere, Berlin-en Hegoadean, "soraboak" (eslaboaren adar bat), beren burua "serbsky" deitzen dutenak. Denak dira gaur elebidunak (sorabo/aleman). Azken datoen arabera, eta 500.000 sorabotarren multzoan, 70.000-k hitz egiten dute bertako hizkera. Baina aurki galdutzat eman beharko da.

Hor ere bai, Europaren baruan alegia, azken argibide bat ematekotan, Krimea-ko "tataroak" ditugu (hizkuntzaz turko-adar bat). Stalin-ek txikitua eta sakabanatua, alferrik saiatzeko diren heriotzaz geroztik ere Krimea-ra bihurtzen. Baina arrazoin "ekonomiko" engatik, Uzbekistan-en daude beti, hizkuntzauharte galdua; eta galtzen ari direla bistan da.

Hizkuntza horiek, dena dela, keltiko, eslabo eta turko adarrak diren aldetik, hau gogora dakiok norbaiti: BEREZ, BARNE-EGITURAZ galtzen ote diren hizkuntza horiek, eta BARNE-EGITURAZ ere besteak atxikitzen.

Hizkuntzarik ezagunenak gaurte hiltzen ari

Alemanera, esate baterako, bi Alemanietan, Suizan eta Austrian lege-hizkuntza sendo eta gotor, ahul eta hilkor agertzen da beste zenbait lekutan. Hizkuntza, bai ahul dagoen hauetan bai sendo dagoen hauetan, berbera izanik, kakoa ezin izan daiteke, eta ez da, barne-egiturari datzekion zerbait, BARNE-EGITURARI EZ DATXEKION ZERBAIT baizik.

Rhin-ekialdera, eta Alemaniari gaindi beraz, bizi-bizirik dago alemanera. Rhin-ek Mendebaldera, berriz, nahiz oraingoz azkar xamar egon (Elssas-en, Alsazian alegia, 1.300.000 lagunek ezagutzen bide dituzte gaur frantsesa eta alemanera), GALTZEN ari da.

Alemanera, era berean, oso makal, eta oraintxe galtzen ari, ikusten dugu bai Prusia zaharrean (poloniera nagusitzen ari), bai Bohemian (txekiera gaintzen ari zaio) eta bai Süd-Tirolen (hemen italiara irabazle).

Frantsesa, bai Frantzia bai Belgika-ko Walonian sendo, zindo eta lege-hizkuntza, oraintxe ari da galtzen beste zenbait lekutan: Aosta ibarrean hiltzeaz dago (italiera garaitzailen), Belgika-ko Flandretan (Antwerpen-en eta Gent-en, esate baterako, gero eta urriago, eta adinez zaharrago, dugu frantsesari eusten dijon belgikar multzoa). Gauza bera ikus daiteke Kanada-ko probintzi askotan; eta are galduago eta ahulago agertzen zaigu Maghreb-en (Arjelian eta abar), baita USA-ren barruan dagoen Loisiare delakoa: 1.000.000 hiztun gaur, elebidunak ia denak.

Gauza bera gertatzen zaio gaztelaniari. Españan eta Hego-Ameriketara azkar eta lege-hizkuntza, ahul eta galkor agertzen zaigu, berbera izanik ere, beste zenbait lekutan. Filipinetan, esate baterako, "tagalog" delakoa ari zaie nagusitzen bai espainerari bai ingleserari. Gauza bera gertatzen da gaur Puerto-Rico-n (inglesera gora). Eta berbera ere bai USA-ko Mendebaldean: Californian, Texasen, eta abar, gelditu ziren "chicanoak", azkar baino azkarrago galtzen ari dira beren mexikotasuna. (Baina, noski, Mexiko-ren barruan, zindo dago hizkuntza berbera).

Euskara bera, bizirik dago Bearnen eta Larrainen; baina hiltzeaz Bilbon edo Errenderian; bizirik base-ritarren eta arrantzaleen artean, eta hilik kaletarren artean. Zergatik?

EDOZEIN HIZKUNTZA hil daiteke, beraz. EDOZEIN HIZKUNTZA HILTZEN DA GAUR GURE BEGIEAN AURREAN. Hizkuntza BERBERA, gaur, baita indartsuenak berak ere, bizirik agertzen da eskualde eta giza-multzo batzutan, eta hiltzeaz,

berriz, beste eskualde eta giza-multzotan.

KAKOA DIGLOSIA DA

Emandako adibide horietan ongi agertzen denez, hizkuntzen bizierak eta heriotzak EZ DUTE EZERTXO ERE IKUSTEKORIK BARNE-EGITURAREKIN: japonera eta txinera, esate baterako, barne-egituraz biak gure hizkuntzetatik arrunt urruti egonagatik ere, zeharo eraberritu eta egokitu dira azkeneko mende honetan. Ez dago hizkuntza arkaikorik.

Hizkuntzen heriotzaren kakoa DIGLOSIA da.

EDOZEIN HIZKUNTZA, diglosiazko egoeran gertatuz gero, hil egiten da. HIZKUNTZEN MINBIZIA DIGLOSIA DA.

Hona hemen, erdaraz, soziolinguista famatu baten iritzia: "El asunto de los cambios de lengua —diokur Uriel Weinreich-ek— es TOTALMENTE EXTRA-ESTRUCTURAL: puesto que se puede dar por descontado que las ESTRUCTURAS respectivas de dos lenguas en contacto NUNCA DETERMINAN cual de las dos lenguas es la que tiene que ceder sus funciones a la otra... NO EXISTEN MOTIVACIONES ESTRUCTURALMENTE LINGÜÍSTICAS EN LOS CAMBIOS DE LENGUA" (Lenguas en Contacto, 224 or.).



Diglosia eta Elebitasuna

Behin eta berriz esandakoa berriro hemen errepikatuz, gauza bat da PERTSONA batek bi hizkuntza erabili ahal izateko duen DOHAINA edo GAITASUNA ("elebitasuna", erd. "bilingüismo/

bilingüisme"); eta beste gauza bat GIZARTE batetan bi hizkuntza egon, eta bi hizkuntza horiek GIZARTE-BETEKIZUN ETA GIZARTE-BALIO DESBERDINAK izatea ("diglosia", erd. "diglosia/diglossie").

Elebitasuna arazo PRIBATUA da, eta pertsonari dagokio; diglosia, berriz, arazo PUBLIKOA. Elebitasuna PSIKOLINGÜÍSTIKAK aztertzen du; diglosia, berriz, SOZIO LINGÜÍSTIKAK.

Euskal Herrian, esate baterako, TXIKIA DA ELEBITASUNA: ehuneko 23 baizik ez dira "elebidunak", "bilingüe". Baina GUZTIZ HANDIA DA DIGLOSIA: ia-ia edozertarako balio du erdarak, ia-ia ezertarako ez, berriz euskarak, gizarte-mailan alegia.

Hizkuntzaren betekizun nagusia hau da: GIZARTE-TRESNA izatea, giza-multzoan erabiltzeko eta gizarte-mailetan gora igotzeko tresna egokia izatea. EKONOMIAREN POLITIKAREN ETA KULTURAREN munduetan, bereziki, TRESNA APROPOSA IZATEA: horra hor hizkuntzaren betekizun nagusia.

Hots, Euskal Herrian erdarak bere betekizun nagusi hori betetzeko badu ere, EUSKARAK EZ DU BETETZEN. Are gutxiago betetzeko du, jakina denez, industriaren eta administrazioaren munduan arrantzaren eta nekazaritzaren munduan baino. Eta hau ongi ageri da Berriz ere: DIGLOSIA HANDIAGO ETA MINBIZIA LARRIAGO.

Jakina: DIGLOSIAREN IN DARRAK azaltzen ditu, hain zuzen emandako adibide guztiak. Zergatik galtzen da, esate baterako, gaztelania Texas-en edo Colorado-n? Har DIGLOSI OSOA dagoelako: gizarte-burruka eramateko, inglesa behar da edozertarako, baina espainiera ezertarako ere ez.

Euskarak, gizarte-mailan, EZ DU EZERTARAKO BALIO, ez du gizarte-baliorik batere. Elkarte abertzaletan beretan ere, ondikotz, ERDARA DA BEHARREZKOA; baina euskara ia inoiz ez. Abertzaleen artean ere DIGLOSI OSOAN bizi gara; eta diglosi-egoera hori errotik erauzi eduguno, EUSKARAK EZ DU HERIOTZAZ BESTE ETORKIZUNIK.

Honengatik, edo hartatik diglosiaren alde JOKATZEN dutenak (berdin zaigu zergatik), euskararek HILTZAILEAK ETA AHORZLEAK dira; eta euskararen HILTZAILEAK ETA AHORZLEAK direla guztiok zine eta garbiki ulertu eta sinetsi arte, edago euskararen arazoa konponbidean ere jartzetik.

(jarraituko da)
TXILLARDE

ZERUKO ARGIA